


HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA  
PORTFOLIO EUROPEO DE LAS LENGUAS

**HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA**  
**PORTFOLIO EUROPEO DE LAS LENGUAS**  
**EUROPEAN LANGUAGE PORTFOLIO**  
**PORTFOLIO EUROPÉEN DES LANGUES**

EUROPEAN LANGUAGE PORTFOLIO

PORTFOLIO EUROPÉEN DES LANGUES





## **Hizkuntzen Portfolio Europarra**

Hizkuntzen Portfolio Europarra hizkuntzen ikaskuntza bultzatzeko eta laguntzeko egina dago. Bere xedea hau da: hizkuntzaren bat ikasten ari zaren horri laguntzea zure ikasketa hori hobetzen eta ongi bideratzen, bai ikastaroren bat egiten ari bazara eta bai bakarka ikasten ari bazara ere. Era berean, hizkuntzez eta kulturez dituzun ezagutzak besteri erakusteko balioko dizu. Portfolioan deskribatzen diren gaitasun-mailak Europako Kontseiluak landutako Erreferentzia Markoan oinarriturik daude.

Zeu zara Portfolio honen jabea. Helduaroan zehar erabil dezakezu tresna hau, ikasgelan edo ikasgelatik kanpora, ikasi duzunaren erakusgarri. Beste erakunde batek argitaratutako Portfolioren bat lehendik badin baduzu, erabiltzen jarrai dezakezu. Era berean, EQUALSeko partaide ez diren ikastegietan ere erabiltzen jarrai dezakezu.

Hizkuntzen Portfolio Europarrak hiru zati ditu: Hizkuntzen Pasaportea, Hizkuntza-Biografia eta Dosierra. Zati bakoitzean dituzu erabiltzeko argibideak.

### **1.- HIZKUNTZEN PASAPORTEA**

Hizkuntzetan dituzun esperientziak eta trebetasunak jasotzeko bilduma laburra da, aldian-aldian eguneratu beharrekoa. Zure ziurtagiri eta diplomen berri jaso dezakezu bertan, baita autoebaluazioa egin ere.

### **2.- HIZKUNTZA-BIOGRAFIA**

Hizkuntza ikasten egin duzun ibilbidearen erregistroa duzu. Zure helburuak zehazten lagunduko dizu, eta izan dituzun hizkuntza-esperientziez eta kulturarteko esperientziez gogoeta egiten.

### **3.- DOSIERRA**

Zure ziurtagiriak eta diplomak, edota zuk egindako lanen aukeraketa bil ditzakezu hemen, zure hizkuntza-trebetasunak eta esperientziak erakusteko.

Hizkuntzen Portfolio Europarraren gaineko argibide gehiago nahi badituzu, edota gaitasun-mailei buruzko informazio gehiago, hainbat hizkuntzatan, Europako Kontseiluko Internet-gunera jo dezakezu: <http://www.coe.int>

## ESKER ONA

Hizkuntzen Portfolio Europarraren bertsio hau EAQUALS eta ALTE erakundeek elkarlanean egin dute, Europako Kontseiluko Hizkuntza Bizien Atalak Strasbourgen koordinatzen duen proiektu pilotuaren baitan.

Bereziki eskertu nahi dugu Portfolioaren Suitzako bertsioa egin duen lan-taldea (Kantoietakoko Hezkuntza Ministroen konferentziaren proiektua), beren ekarpenengatik eta lankidetzagatik.

Orobat Günther Schneider eta Brian North eskertu nahi ditugu Portfoliorako eta Erreferentzia Markorako landu dituzten kontrol-zerrendak erabiltzen utzi baitigute, Suitzako Zientzia Ikerketarako Fundazio Nazionaleko proiektutik (Fremdsprachen können – was heisst das? Zürich, Rüegger, 2000).

Egileak: Robin Davis, Marianne Hirtzel, Brian North  
© egileak Cambridge 2000

Eskerrak ondoko zerrendan dauden erakundeetako ikasle-irakasleei, Portfolioaren bertsio hau probatzen eta errazten ibili garenean eskaini dizkiguten oharrengatik eta laguntzagatik.

Academia Lacunza, Donostia,  
Bell International, Cambridge, Saffron Walden, Budapest, Prague  
British Council, Erroma, Italia  
British Institute of Rome, Italia  
British School of Trieste, Italia  
Club Schools – MGB, Zurich, Suitza  
Eurocentres, London  
Goethe Institute  
International House, Londres  
Kramer &Kramer, Kroazia  
Malaca Instituto, Malaga, Espainia  
Octopus Language Services, Zagrev, Kroazia  
QUEST, Erromania  
The British School, Monza, Italia

Editoreen esker ona beste erakunde hauei ere: Bell Educational Trust, Eurocentres Fundazioa eta Cambridge-ko Unibertsitateko Local Examinations Syndicate, proiektu honi eman dioten laguntzagatik. Baita Friuli-Venezia Giulia-ko (Italia) British School-eko langileei ere, proiektuaren kudeaketan eskaini duten laguntzagatik.

“Hizkuntzen Portfolio Europarra” izena eta Pasaportearen bere logoa daramaten orrialdeak Europako Kontseiluarenak dira.



EAQUALS (European Association for Quality Language Services) elkarte pan-europarra da. Bere baitan biltzen dituen erakundeek hizkuntza-zerbitzuak ematen dituzte eta kalitate-arauak zaintzen, bai bere irakaskuntzan eta bai antolamenduan ere. Erakunde partaide bakoitza EAQUALSek ikuskatzen du hiru urtetik behin, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea EAQUALSen Jokabide-kodearekin bat datorrela bermatzeko.

[www.eaquals.org](http://www.eaquals.org)

EAQUALS  
Via Torrebianca 18  
34132 Trieste  
Italy



ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkarteak Europako hizkuntzen azterketak egiten dituzten hainbat erakunde biltzen ditu. Partaide diren erakundeek goi-mailako irizpideak zaintzen dituzte hizkuntza-azterketen arau europar bateratuak garatzeko, balioztatzeko eta hobetzeko. ALTEko partaideen azterketak berariazko erreferentzia-taulan agertzen dira.

[www.alte.org](http://www.alte.org)

ALTE  
1 Hills Road  
Cambridge  
CB1 2EU  
UK



Council of Europe  
Modern Languages Division DGIV  
67075 Strasbourg Cedex  
France



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

[www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)

Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredua: 06.2000 zkia.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia -Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia-San Sebastian, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskal itzulpena: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Academia Lacunza

ISBN: 84-457-2042-2

Lege-gordailua: BI-1385-04

Vitoria-Gasteiz, 2004

EAQUALS-ALTE

# Hizkuntza-biografia

(EAQUALS-ALTEren Hizkuntzen Portfolio Europarraren zatia)



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.

EAQUALS-ALTE-rekin adostua

EAQUALS



HPE eredu hau bat dator Europako Hastapen eta Norabide komunekin.  
KULTUR ELKARLANEKO KONTSEILUA  
HEZKUNTZA BATZORDEA- HPEren ONESPENA

## HIZKUNTZA-BIOGRAFIA

Hizkuntza-biografia hau etengabe eguneratuta eduki dezakezun dokumentua duzu. Zure hizkuntzei buruzko informazioa biltzen du: nola ikasi dituzun, zergatik eta non. Ondoko gauzak egin ditzakezu bertan: ikastean dituzun beharrak eta xedeak ebaluatu, gogoeta egin zure ikasprozesuaz edo kulturarteko esperientziez, eta hizkuntza bakoitzean duzun mailaren balioespina egin. Horrek lagunduko dizu metodo bakoitzarekin egin duzun aurrerapena zehazten. Argibide horiekin errazago hartuko dituzu erabakiak hizkuntzak ikasten jarraitzeko.

Irakaskuntza arautuaren barnean edo kanpoan hizkuntza-arloan ikasi duzuna eta izan dituzun esperientziak jaso ahal izango dituzu Biografia honetan beren xehetasunekin. Hizkuntzen Pasaportean, berriz, informazio hori bera laburbil dezakezu, diseinua horretarako pentsatua baitago.

Orri berriak ere erants ditzakezu nahi duzunean, hizkuntza-biografia eguneratzeko edota beste hizkuntza batzuk gehitzeko. Orri gehiago eransteko, zure ikastegian eska ditzakezu edota Interneten bilatu ondoko web-orrietan: [www.equals.org](http://www.equals.org) edo [www.alte.org](http://www.alte.org)

Hizkuntza-biografia honek lau atal ditu:

- |   |  |
|---|--|
| 1/ Nire helburuak hizkuntzak ikasterakoan                             | Hemen, hizkuntza zergatik ikasten ari zaren idatziko duzu eta zuretzat zein diren hizkuntza-trebetasun garrantzitsuenak. |
| 2/ Nire ibilbidea hizkuntzak ikasten                                  | Hemen hizkuntza ikasten izan dituzun esperientziak zerrendatuko dituzu ordena kronologikoan.                             |
| 3/ Nire hizkuntza-esperientzia eta kulturarteko esperientzia nagusiak | Hemen zuretzat garrantzitsuenak izan diren hizkuntza-esperientzia eta kulturarteko esperientziak deskribatuko dituzu.    |
| 4/ Nire gaur eguneko lehentasunak hizkuntza-ikasketan                 | Hemen zure mailan egiteko gai zarena ebaluatuko duzu eta ikastaro-amaieran zer egiteko gai izan nahi zenukeen zehaztu.   |



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredua, 06.2000 zkia.



# Hizkuntza-biografia erabiltzeko argibideak

## 1. Nire helburuak hizkuntzak ikasterakoan

Atal honen helburua hauxe da: hizkuntza bat ikasteko dituzun arrazoiak zeintzuk diren azaltzea eta horrekin zer lortu nahi duzun argitzea. Horrela, ikastaro bat egiten ari bazara, zure helburuak kontuan hartuko dituen programa egiten lagunduko diozu zure irakasleari. Aldiz, hizkuntza zure kontura ikasten ari bazara, zertan lan egin behar duzun erabakitzeko baliagarria izango zaizu.

Orriaren goiko aldean dauden galderak adibideak dira. Ez diezu zertan erantzun denei eta, beharbada, zuretzat egokiagoak diren beste galdera batzuk bururatuko zaizkizu. Zure erantzunak testu baten antzera idatz ditzakezu edo, bestela, helburuen zerrenda soila eman dezakezu.

Hizkuntza bakoitzeko orrialde bat erabil ezazu.

## 2. Nire ibilbidea hizkuntzak ikasten

Atal honetan, hizkuntzak ikasten izan dituzun esperientzia guztien ikuspegi kronologikoa emango duzu. Haurtzarotik ezagutu duzun edozein hizkuntza sar dezakezu: familia barrukoak, atzerrian edo beste eskualde batean ikasitakoak, eskolan irakatsi dizkizutenak, beste herrialdeak bisitatzerakoan ikasitakoak edo lanean erabilitakoak.

Noizean behin egunera ezazu zure Hizkuntza-biografia, eta gehitu itzazu esperientzia nahiz ikasketak berriak. Behar dituzun heinean, orriak erantsi iezazkiozu.

Zure hizkuntza **guztiak** sar itzazu. Beste hizkuntza baten ezaguera mugatua baduzu ere, garrantzitsua eta gogoan hartzekoa da: atzerrian oporretan ikasitako hizkuntza izan liteke edo zure herrialdean bertan berezko hizkuntza duen eskualde batean ikasitakoa. Baita, telebista eta filmak ikusiz edo egunkariak irakurriz zertxobait ulertzeraz iritsi zaren hizkuntza ere.

Atal honen helburua hauxe da: zure hizkuntza-ezaguera guztien irudi argia ematea. Irudi hau zuretzat ez ezik jende gehiagorentzat ere lagungarria izango da; adibidez, beste eskola batera aldatzen zarenean edo lan bila zoazenean, zure hizkuntza-ezaguerearen berri eman lezake.

Kontuan izan hainbat informazio eman behar duzula. Adibidez, eskolan ikasitako hizkuntzei buruz idazten ari bazara, adieraz ezazu asteen zenbat eskola hartu dituzun eta zein epealditan. Urteen zutabearen, adieraz ezazu esperientziak noiz izan dituzun.

Hizkuntzen Pasaportean, Hizkuntza-ikasketaren eta kulturarteko esperientzien aurkibidea betetzen ari zarenean, hemen emandako informazioan oinarritu zaitez erantzunak emateko.



COUNCIL OF EUROPE  
CONSEIL DE L'EUROPE

Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.





### 3. Nire hizkuntza-esperientzia eta kulturarteko esperientzia nagusiak

Atal honetan zugar eragina izan duen kulturarteko edozein esperientzia jasoko duzu. Esperientzia horiek hizkuntza bat ikasten lagundu dizute agian, edota beste kultura bat hobeki ezagutzen eta ulertzen. Adibidez, beste lurralde bateko norbait ezagutzen denean edo bertan oporraldi bat igaro ondoren edo egonaldi-truke batean parte hartu ondoren, norbera ere askoz ere motibatuagoa egon ohi da beste hizkuntza bat ikas- teko. Era berean, liburuak irakurrita edo musika entzunda beste hizkuntza batekiko edo beste kultura batekiko sentitzen duzun interesa handitu egin liteke. Beharbada lurralde horretako kirol-talde baten zalea zara. Pentsa ezazu nola aldatu duten esperientzia hauek zure jarrera, hizkuntza eta kultura jakin horrekiko.

Orriaren goiko aldean dauden galderak adibideak dira. Ez diezu zertan erantzun denei eta, beharbada, zuretzat egokiagoak diren beste galdera batzuk bururatuko zaizkizu. Zure erantzunak testu baten antzera idatz ditzakezu edo, nahi baduzu, helburuen zerrenda soil eman dezakezu.

Kulturarteko esperientziei buruz idazten ari zarenean, kontuan har zenitzake ondoko arloetariko batzuk:

- Janzkeran eta portaeran antzeman dituzun desberdintasun nabarmenak
- Zer egin zaizun deigarri, deserosoa delako, dibertigarria delako edo nahasgarria delako
- Kultura ezagutzen ez zenuelako izan zenituen gaizki-ulertuak
- Gustura egin zenuen zerbait, etxean egiterik ez duzuna, eta zeren falta sumatu zenuen
- Beste kulturaz egin zenuen ideia
- Zeure kulturaz egin zenuen ideia
- Esperientziak nola aldatu zintuen

Hizkuntza bakoitzeko orrialde bat erabil ezazu.

### 4. Nire gaur eguneko lehentasunak hizkuntza-ikasketan

Atal honen helburua hau da: zure hizkuntza-ezaguerak kalkulatzeko eta ikasketa helburuak ezartzen laguntzea. Aldian-aldian autoebaluazioa egin dezakezu eta ikusi zertan ari zaren hobetzen.

Biografia honetan autoebaluazioarako sei “kontrol-zerrenda” dituzu, Erreferentzia Marko Europarreko maila bakoitzeko bat. Pasaportearen ere “Autoebaluazio-taula” orokorra daukazu. Autoebaluazio-taula horretan deskribapen laburtuak ageri dira pertsona batek gaitasun-maila bakoitzean egin dezakeenari buruz: entzumenean, irakurmenean, elkar- ritzketan, ahozko adierazpenean eta idazmenean. Hizkuntza-biografiako kontrol-zerren- den helburua deskribapen orokorrak xehatzea da, esaldi zehatzagoetan aletuz. Horrela errazagoa izango zaizu ikasketa helburuak ezartzea eta ea maila egokian zauden egiaztatzea. Adibidez, Pasaporteko Autoebaluazio-taularen A1 mailan hau da entzu- menaren arloan:

*Gai naiz hitz arruntenak eta oso oinarrizko esamoldeak ulertzeko nitaz, nire familiaz eta inguruko gauzez, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.*



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



A1 kontrol-zerrendan, hori honela xehatzen da:

Entzumena

- *Gai naiz entzundakoa ulertzeko, norbaitek oso astiro hitz egiten didanean, etenaldi luzeak eginez eta kontu handiz ahoskatuz.*
- *Gai naiz helbide errazak ulertzeko: nola iritsi X puntutik Y puntura, oinez edo garraio publikoaren bidez.*
- *Gai naiz ulertzeko astiro eta kontu handiz egindako galdera eta argibideak, eta instrukzio labur eta errazak.*
- *Gai naiz zenbakiak, prezioak eta orduak ulertzeko.*

### **Nola ebalua nezake nire hizkuntza-maila?**

Pasaporteko Autoebaluazio-taulako deskribapenak irakur itzazu. Has zaitez gaitasun bat begiratzen, adibidez “entzumena”. Zutabeetan zehar irakur ezazu, zuri hobekien dagokizun deskribapena aurkitu arte. Ondoren, zutabe horretan bertan, irakur itzazu beste trebetasunen deskribapenak. Horiek ere ongi deskribatzen al dute zure maila? Hala ez bada, begira ezazu eskuineko zutabearen (maila altuagoa) edo ezkerrekoan (maila baxuagoa), zure maila aurkitzeko.

Zein da Autoebaluazio-taulan gehien aukeratu duzun maila? Horixe izango da biografia honetan hartu behar duzun kontrol-zerrenda. Ikastaro bat egiten ari bazara, zure irakasleak maila horri dagozkion oharrak egingo dizkizu. Trebetasun batean edo bestean gora-goko edo behegoko maila batean zaudela erabaki baduzu, trebetasun horretarako beste kontrol-zerrenda bat erabili beharko duzu.

Ondoren, kontrol-zerrenda horiek landu itzazu, aldiko atal bat. Esaldi bakoitza kontuan hartu. Benetan horretarako gai izan nahi duzu? Garrantzitsua al da zuretzat? Hala bada, “Nire lehentasunak” zutabeko koadrotxoan marka bat egin ezazu. Dagoeneko hori egiteko gai al zara? Hala bada, “Gai naiz hau egiteko” zutabeko koadrotxoa marka ezazu.

Esaldi guztiak pasatzen dituzunean, hauxe duzu egina:

- a) zure ikas-helburuak zehaztuta dituzu
- b) zure egoera ebaluatuta duzu helburu horiekiko. Data bat idatzi beharko zenuke “Gai naiz hau egiteko” zutabearen ondoan, horrela beranduago, hizkuntza ikasten ari zarenean, nola aurreratzen ari zaren ikusi ahal izango duzu.

Orain, zure kontrol-zerrendetan oinarriturik, “*Hizkuntza-trebetasunen profila*” bete dezakezu Pasaportean.

Hizkuntzaren ikasketan aurreratu duzunean, balorazio pertsonala berriro egin ezazu eta begiratu non egin duzun aurrerapena eta non lortu dituzun zure helburuak. Maila altuago batera iristen zaren neurrian, Pasaporteko “Hizkuntza trebetasunen profila” egunera ezazu.

Ikastaro bat bukatu ostean zure kasa hizkuntza ikasten jarraitu nahi baduzu, orduan ere autoebaluazio-prozesua egiten jarrai dezakezu. Zure ikasketa planifikatzen eta aurrerapena kalkulatzeko lagunduko dizu.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako ereduak, 06.2000 zkia.



## 1. Nire helburuak hizkuntza ikasterakoan

**HIZKUNTZA:** \_\_\_\_\_

Idatz itzazu zure helburuak: zer eta nola ikasi nahi duzun.  
Hizkuntza bakoitzeko orrialde bat erabil ezazu.

Zergatik nahi duzu hizkuntza hau ikasi? Zure lanagatik, bidaiatzeko, ikasketetarako?  
Zer jakin behar duzu egiten hizkuntza honetan?

Zer da garrantzitsuagoa zuretzat: jendeari ulertzea, idaztea, hitz egitea edo irakurtzea?  
Maila jakin bat lortu behar al duzu?

Nola uste duzu ikasten duzula hobeto?

---

*Hemen azpian idatzi*



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.







HIZKUNTZA: \_\_\_\_\_

### 3. Nire hizkuntza-erperientzia eta kulturarteko esperientzia esanguratsuenak.

Hizkuntza bakoitzeko orrialde bat erabil ezazu.

Idatz ezazu baliagarri izan zaizkizun kulturarteko esperientziei buruz.

Esperientzia horiek nola aldatu dute hizkuntza eta kultura horrekin duzun harremana?

Nola lagundu dizute hizkuntza ikasten eta beste hizkuntza batzuk ulertzen?

Zer gauza gustatu zaizu gehien esperientzia horietatik?

*Adibidez: Ikasten ari zaren hizkuntzak hitz egiten diren lekuetara egindako bisitak.  
Kulturarekin eta hiztunekin izandako harremana  
Beste kultura bat ezagutzen lagundu dizuten beste jarduera batzuk  
Atzerriko hizkuntza edo kultura batez egindako lan edo proiektu bereziak.*

---

*Hemen azpian idatzi*



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredua, 06.2000 zkia.



**A1 maila**

Zerrenda hau oinarri hartuta, ikus ezazu zer egiteko gai zaren, eta ikastaroa amaitzerakoan zer egiteko gai izan nahi duzun. Erabil ezazu lehenengo zutabea zure lehentasunak zehazteko. Bigarren zutabeak ikastaroan zehar zer egiteko gai zaren egunean edukitzeko balioko dizu.

**Entzumena**

Gai naiz entzundakoa ulertzeko, norbaitek oso astiro hitz egiten didanean, etenaldi luzeak eginez eta kontu handiz ahoskatuz.

Gai naiz helbide errazak ulertzeko: nola iritsi X puntutik Y puntura, oinez edo garraio publikoaren bidez.

Gai naiz ulertzeko astiro eta kontu handiz egindako galderak eta argibideak, eta instrukzio labur eta errazak.

Gai naiz zenbakiak, prezioak eta orduak ulertzeko.

**Irakurmena**

Gai naiz egunkarietan azaltzen diren pertsonen buruzko informazioa (bizilekua, adina etab.) ulertzeko.

Gai naiz iragarki edo posterretan azaltzen den emanaldi bat edo film bat aukeratzeko, baita non den eta zer ordutan hasiko den ulertzeko ere.

Gai naiz galdera-sorta bat ulertzeko (izena emateko, hotelean izena emateko) eta neure buruaz informazio nagusia emateko (izena, abizena, jaioteguna, herritartasuna).

Gai naiz egunero kalean aurkitzen ditugun ikurretan dauden hitzak eta esaldiak (adibidez, “geltokia”, “aparkalekua”, “ez aparkatu”, “ez erre”) ulertzeko.

Gai naiz ordenagailu-programa bateko agindu nagusiak (“inprimatu”, “gorde”, “kopiatu”, etab.) ulertzeko.

Gai naiz postaletako mezu labur eta errazak ulertzeko; oporretako agurrak, adibidez.

Gai naiz eguneroko egoeretan, lagunek edo lankideek idatzitako mezu errazak ulertzeko; “lauretarako itzuliko naiz”, adibidez.

**Elkarrizketa**

Gai naiz norbait aurkezteko eta oinarrizko agurrak erabiltzeko (“kaixo”, “agur”).

Gai naiz galdera errazak egiteko eta erantzuteko; baieztapenak egiteko eta erantzuteko gai arrunt eta ezagunetan.

Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina nire solaskidearen menpe nago, berak prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeke, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko.

Erosketa errazak egin ditzaket keinuz lagunduta edo eskuaz seinalatuta.

Gai naiz zenbakiak, zenbatekoak, salneurriak eta orduak erabiltzeko.

Gai naiz jendeari gauzak eskatu eta emateko.

Gai naiz jendeari galdera sinpleak egiteko (non bizi diren, ezagutzen duten jendea, dauzkaten gauzak etab.); eta galdera hauek niri poliki eta argi eginez gero, gai naiz erantzuteko.

Gai naiz denbora adierazteko, “hurrengo astean”, “joan den ostiralean”, “azaroan”, “hiruretan” bezalako esamoldeekin.

**Ahozko adierazpena**

Gai naiz neure berri emateko: helbidea, telefono-zenbakia, herritartasuna, adina, familia, eta zaletasunak.

Gai naiz non bizi naizen deskribatzeko.

**Estrategiak**

Gai naiz ulertzen ez dudala esateko.

Gai naiz, oso modu sinplean, norbaiti esan duena errepika dezan eskatzeko.

Nire  
lehentasunak

Gai naiz  
hau egiteko



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



#### 4. Nire gaur eguneko lehentasunak hizkuntza-ikasketan **HIZKUNTZA:** \_\_\_\_\_

### A1 maila (jarraipena)

#### Idazmena

- |   |                          |                          |
|---|--------------------------|--------------------------|
| Gai naiz neuri buruzko galdera-sortak betetzeko (lanpostua, adina, helbidea, zaletasunak)                     | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Gai naiz zorion-txartelak idazteko (urtebetetze-txartela, esaterako).   | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Gai naiz postal sinpleak idazteko (oporretako agurrekin, adibidez).   | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Gai naiz norbaiti oharra idazteko, non nagoen edo non elkartuko garen esanez.                                 | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| Gai naiz neuri buruzko perpausak eta esaldi errazak idazteko: non bizi naizen eta zer egiten dudan, adibidez. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



Deskriptore hauek Erreferentzia Marko eta Hizkuntzen Portfolio Europarrerako sortuak dira Suitzako Zientzia Fundazio Nazionalaren proiektu batean (Schneider, G. & Norton, B, 2000 *Fremdsprachen können – was heisst das?*, Chur / Zürich, Rüegger)  
© Editions scolaires du canton de Berne / Berner Lehrmittel- und Medienverlag 2001.

**A2 maila**

Zerrenda hau oinarri hartuta, ikus ezazu zer egiteko gai zaren, eta ikastaroa amaitzerakoan zer egiteko gai izan nahi duzun. Erabil ezazu lehenengo zutabea zure lehenetasunak zehazteko. Bigarren zutabeak ikastaroan zehar zer egiteko gai zaren egunean edukitzeko balioko dizu.

**Nire lehenetasunak**  
**Gai naiz hau egiteko**

**Entzumena**

- Gai naiz, eguneroko elkarrizketan, argi, astiro eta zuzen esandakoa ulertzeko; batez ere solaskideak nik ulertzeko ahalegina egiten badu.
- Gai naiz nire inguruko elkarrizketa baten gaia zein den harrapatzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten badu.
- Gai naiz perpausak, hitzak eta esamoldeak ulertzeko hurbileko gaietan (norberari eta familiari buruzko informazio oinarritzakoa, erosketei buruzkoa, herrikoa, lanekoa).
- Gai naiz puntu nagusiak harrapatzeko mezu eta iragarki labur, argi eta sinpleetan.
- Gai naiz eguneroko arazoekin zerikusia duten grabazio laburren informazio nagusia ulertzeko, astiro eta argi hitz egiten denean.
- Gai naiz telebistan agertzen diren jazoera, istripu, eta horrelako berrien mamia identifikatzeko, baldin eta irudi argiak agertzen badira.

**Irakurmena**

- Gai naiz albiste-laburpenetako edo egunkariko artikulua errazteko informazio nagusia identifikatzeko. Testu horiek argi egituratuak eta irudizatuak izan behar dute eta beren edukietan zenbakiak eta izenak garrantzitsuak dira.
- Gai naiz eskutitz pertsonal sinpleak ulertzeko. Esate baterako, norbaitek eguneroko gauzak kontatzen dituen edo horretaz galdetzen didanean.
- Gai naiz lankide edo lagunak idatzitako mezu sinpleak ulertzeko (esaterako, futboleko jokatzeko noiz bildu gintezkeen esanez edo lanera lehenago joateko eskatuz).
- Gai naiz aisialdiko jarduerari, erakusketei eta abarrei buruzko informazio nagusia esku-paperetan aurkitzeko.
- Gai naiz egunkarietan iragarki txikiak gaintik irakurtzeko, nik nahi dudan izenburua edo zutabea aurkitzeko eta informazio-zati nagusiak identifikatzeko (esaterako, etxeen, autoen edo ordenagailuen prezioak eta neurriak).
- Gai naiz zerbitzuen eta tresnen argibide sinpleak ulertzeko (telefono publikoenak, adibidez).
- Gai naiz ordenagailu-programen mezu edo laguntza-argibide sinpleak ulertzeko.
- Gai naiz eguneroko bizimoduari buruzko idazki laburrak ulertzeko, gaiak ezagunak zaizkidanean eta testua erraz idatzita dagoenean.

**Elkarrizketa**

- Gai naiz salerosketa sinpleak egiteko dendetan, posta bulegoan edo bankuan.
- Gai naiz garraio publikoak erabiltzeko (autobusak, trenak eta taxiak), oinarritzko argibideak eskatzeko edo txartelak erosteko.
- Gai naiz bidaiari buruzko informazio sinplea lortzeko.
- Gai naiz edatekoa edo jatekoa eskatzeko.
- Gai naiz erosketa sinpleak egiteko, zer nahi dudan esanez eta prezioa galdetuz.
- Gai naiz mapa edo plano baten gainean bidea galdetzeko edota adierazteko.
- Gai naiz jendea agurtzeko, nola dauden galdetzeko eta ematen dizkidaten berrien aurrean zerbait esateko.
- Gai naiz gonbitak egiteko edo gonbitei erantzuteko.
- Gai naiz aitzakiak jartzeko edota onartzeko.
- Gai naiz zer gustatzen zaidan eta zer gustatzen ez zaidan esateko.
- Gai naiz beste batzuekin zer egin eta nora joan eztabaidatzeko. Gai naiz elkartzeko ordua eta tokia adosteko.
- Gai naiz jendeari lanean eta aisialdian zer egiten duen galdetzeko; baita galdera horiei erantzuteko ere, niri egiten dizkidatenean.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.





**A2 maila (jarraipena)****Ahozko adierazpena**

Gai naiz neure burua, familia eta bestelako jendea ere deskribatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz non bizi naizen deskribatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz gertaeren deskribapen labur eta oinarritzkoak egiteko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz jasotako heziketa eta nire lehengo nahiz oraingo lana deskribatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz nire zaletasunak eta interesak sinpleki deskribatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz izandako pasadizoak eta esperientzia pertsonalak deskribatzeko (adib. azken asteburua, azken oporrak).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Estrategiak**

Gai naiz norbaitengana jotzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz noiz ulertzen dudana adierazteko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz solaskideari eskatzeko esan duena errepika dezala.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak**

Gai naiz komunikatzeko, buruz ikasitako perpausak eta esaldi sinpleak erabiliz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz hitz multzoak elkartzeko “eta”, “baina”, “zeren”... bezalako lokailuak erabiliz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz egitura sinpleak zuzen erabiltzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eguneroko egoera sinpleetan jarduteko adinako lexikoa daukat.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Idazmena**

Gai naiz ohar laburrak eta mezu sinpleak idazteko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz gertaerak esaldi sinpleekin deskribatzeko eta zer gertatu zen (noiz eta non) adierazteko (adib. festa bat edo istripu bat).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz nire eguneroko bizimoduari buruz idazteko, esaldi eta esapide sinpleak erabiliz (jendea, lekuak, lana, eskola, familia, zaletasunak).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz jasotako heziketari, lanari, interesei edota nire trebetasunei buruzko galdera-sorta bati erantzuteko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz gutun batean nire burua laburki aurkezteko, esaldi eta esapide sinpleak erabiliz (adib. familia, eskola, lana, zaletasunak).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz, esapide sinpleak erabiliz, eskutitz laburrak idazteko: zoriontzeko, helbidea emateko, zerbait galdetzeko edo norbaiti eskerrak emateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz esaldi laburrak idazteko, “eta”, “baina”, “zeren...” bezalako lokailuak erabiliz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gai naiz gertaeren ordena kronologikoa adierazteko lokailu nagusiak erabiliz (“lehenik”, “gero”, “orduan”, “ondoren”, “beranduago”).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



**B1 maila**

Zerrenda hau oinarri hartuta, ikus ezazu zer egiteko gai zaren, eta ikastaroa amaitzerakoan zer egiteko gai izan nahi duzun. Erabil ezazu lehenengo zutabea zure lehentasunak zehazteko. Bigarren zutabeak ikastaroan zehar zer egiteko gai zaren egunean edukitzeko balioko dizu.

Nire lehentasunak  
Gai naiz hau egiteko

**Entzumena**

Gai naiz eguneroko elkarrizketak jarraitzeko, argi hitz egiten didatenean, nahiz eta batzuetan hitz edo esaldi berezi batzuk errepikatzeko eskatu behar dudana.

Gai naiz eztabaidak oro har jarraitzeko, baldin eta argi eta hizkera estandarrean hitz egiten badute.

Gai naiz narrazio laburrak entzuteko eta jarraian gertatuko denaz hipotesiak egiteko.

Gai naiz puntu nagusiak ulertzeko irrat emanaldi batean edo grabazio sinpleetan, gaia interes pertsonalekoa denean, baldin eta nahiko astiro eta argi hitz egiten badute.

Gai naiz nire intereseko telebista-programen haria jarraitzeko, hizkera nahiko geldia eta argia denean.

Gai naiz informazio tekniko sinpleak ulertzeko (esaterako, tresna arruntak erabiltzeko argibideak).

**Irakurmena**

Gai naiz egunkariko artikulua laburren puntu nagusiak ulertzeko, gaiak arruntak edo ezagunak direnean.

Gai naiz gaur eguneko gai edo gertakariei buruzko zutabeak edo elkarrizketak irakurtzeko egunkari eta aldizkarietan, eta testuaren esanahi orokorrak jabetzeko.

Gai naiz, testuinguruaz baliaturik, hitz ezezagunen esanahia asmatzeko, eta esaldien esanahia ulertzeko, gaia ezaguna bada.

Gai naiz testu laburrak gainbegiratzeko (adib. albiste-laburpenak) eta puntu eta informazio nagusia aurkitzeko (adib. nork egin duen zer eta non).

Gai naiz eguneroko esku-paperetan agertzen den informazio nagusia ulertzeko.

Gai naiz mezu sinpleak eta eskutitz estandarrek ulertzeko (adib. enpresa, elkarte edo zerbitzu publikoetatik datozenak).

Gai naiz, eskutitz pribatuetan, gertaera, sentimendu eta desio-azalpenak nahiko ondo ulertzeko. Orobat gai naiz norbaitekin gutun bidezko harremana izateko.

Gai naiz argi egituratutako istorioen argumentua ulertzeko, atal eta gertaera nagusiak zeintzuk diren antzemateko eta zergatik diren adierazgarriak jakiteko.

**Elkarrizketa**

Gai naiz aurrez aurreko elkarrizketa sinpleak hasi, mantendu eta amaitzeko, gaia ezaguna edo interes pertsonalekoa denean.

Gai naiz elkarrizketan edo eztabaidan jarduteko, baina batzuetan zaila izan liteke esan nahi nukeena ulertzea.

Gai naiz txukun moldatzeko bidaia baten erreserba agentzian egiterakoan edo bidaian bertan gerta daitezkeen gorabeheretan.

Gai naiz helbide bati buruzko xehetasunak galdetzeko eta ematen dizkidaten azalpen xeheak jarraitzeko.

Gai naiz sentimenduak adierazteko, hala nola harridura, poza, tristura, jakin-mina edo ezaxola. Halaber, sentimenduok beste norbaitek adierazten dizkidanean, gai naiz erantzuna emateko.

Gai naiz neure ikuspuntu eta iritziak azaltzeko, lagunekin edo ezagunekin hitz egiten dudanean.

Gai naiz ados nagoela edo ez nagoela edukazioz adierazteko.

**Ahozko adierazpena**

Gai naiz istorioak kontatzeko.

Gai naiz esperientziak zehatz azaltzeko, aldi berean nire sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz.

Gai naiz nire ametsak, itxaropenak eta helburuak azaltzeko.

Gai naiz nire planak, asmoak eta ekintzak azaltzeko eta horien zergatiak emateko.

Gai naiz liburuen edo filmen argumentuak kontatzeko eta nire inpresioak deskribatzeko.

Gai naiz testu idatzien pasarte laburrak sinpleki ahoz kontatzeko, jatorrizko testuaren hitzak eta ordena erabiliz.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



**B1 maila (jarraipena)****Estrategiak**

- Gai naiz bestek esandakoa errepikatzeko, horrela elkar ulertzen dugula egiaztatzeko.
- Gai naiz bestek esandakoa zehatzago edo argiago azal dezala eskatzeko.
- Gai naiz, nahi dudan hitza aurkitzen ez badut, antzeko esanahia duen hitza erabiltzeko eta “zuzenketa” eskatzeko.

**Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak**

- Gai naiz elkarrizketan era ulergarrian jarduteko, baina etenaldiak egin behar ditut esaten ari naizena pentsatu eta zuzentzeko, bereziki luze eta aske hitz egiten dudanean.
- Gai naiz aldiaren aldiko informazio sinplea emateko, puntu nagusiak nabarmenduz.
- Badaukat behar adinako hitz-altxorra nire eguneroko gai gehientsuenak adierazteko (hala nola familia, zaletasunak eta interesak, lana, bidaiak, eguneroko gertaerak), batzuetan perifrasiak erabili behar baditut ere.
- Gai naiz egoki samar hitz egiteko ohiko egoeretan edota aurreikus litezkeen egoeretan.

**Idazmena**

- Gai naiz gustuko arloetan testu sinple eta koherenteak idazteko, baita neure ikuspuntuak eta iritziak emateko ere.
- Gai naiz esperientziei edo gertaerei buruzko testu sinpleak idazteko (esaterako, bidaia bati buruzkoak), eskolako edo elkarte bateko egunkarirako.
- Gai naiz lagunentzako edo ezagunentzako eskutitz pertsonalak idazteko, berriak eskatuz, berriak emanez edo gertaerak kontatuz.
- Gai naiz, eskutitz pertsonaletan, filmen edo liburuen argumentuak kontatzeko edo kontzertu baten berri emateko.
- Gai naiz eskutitzetan mina, zoriona, interesa, damua eta begikotasuna bezalako sentimenduak adierazteko.
- Gai naiz iragarki bati idatziz erantzuteko edota produktu bati buruzko informazio osatuagoa edo zehatzagoa eskatzeko (auto bat edo ikastaro bat, adibidez).
- Gai naiz, fax, e-mail edo mezu bidez, lagunei edo lankideei informazio labur eta sinpleak emateko edo eskatzeko.
- Gai naiz curriculum vitae labur bat idazteko, taula moduan besterik ez bada ere.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredua, 06.2000 zkia.



**B2 maila**

*Zerrenda hau oinarri hartuta, ikus ezazu zer egiteko gai zaren, eta ikastaroa amaitzerakoan zer egiteko gai izan nahi duzun. Erabil ezazu lehenengo zutabea zure lehentasunak zehazteko. Bigarren zutabeak ikastaroan zehar zer egiteko gai zaren egunean edukitzeko balioko ditu.*

**Nire lehentasunak**  
**Gai naiz hau egiteko**

**Entzumena**

- Gai naiz hizkera estandarrean esaten didatena zehazki ulertzeko, zarata artean bada ere.
- Gai naiz nire intereseko aurkezpenak edo ikastaroak jarraitzeko, baldin eta arloa hurbilekoa bazait eta egitura argia eta erraza badute.
- Gai naiz irratiko erreportaje gehienak ulertzeko hizkera estandarrean direnean, baita hizlariaren aldartea, tonua, etab. atzemateko ere.
- Gai naiz ulertzeko telebistako dokumental, elkarrizketa, saio eta film gehienak, hizkera estandarrean direnean.
- Gai naiz hizketaldi konplexuetan puntu nagusiak ulertzeko, gai konkretuetan nahiz abstraktuetan, baldin eta hizkera estandarra erabiltzen bada. Nire espezializazio-esparruko eztabaidak ere ulertzen ditut.
- Gai naiz, hobeto ulertu nahi dudanean, hainbat estrategia erabiltzeko: esaterako, puntu nagusiei erreparatzeko edota, gako kontestualei esker, ulertu dudana egiaztatzeko.

**Irakurmena**

- Gai naiz, nire intereseko edo lan-arloko gazetan, albisteen, artikuluen eta erreportajeen edukia eta esanahia azkar harrapatzeko, baita irakurketa sakonagoa merezi duten erabakitzeko ere.
- Gai naiz eguneroko arazoei buruzko artikulua eta erreportajeak irakurtzeko; baita egileek azaltzen dituzten iritziak eta jarrera partikularrak ulertzeko ere.
- Gai naiz nire espezializazio-arloko testuak edota nire interesekoak zehaztasunez ulertzeko.
- Gai naiz nire espezializazio-arlotik kanpoko artikulua ulertzeko, tarteka hiztegia erabiliz.
- Gai naiz kultura-arloko kritikak irakurtzeko (filmak, antzerkia, liburuak, kontzertuak), baita puntu nagusiak laburtzeko ere.
- Gai naiz nire intereseko, lan-arloko edo espezializazio-esparruko gutunak irakurtzeko eta puntu nagusiak atzemateko.
- Gai naiz gidaliburuak azkar begiratzeko (esaterako, ordenagailu-programa batena) eta arazo jakinak konpontzearen behar ditudan argibideak aurkitu eta ulertzeko.
- Gai naiz, testu narratibo edo dramatikoak irakurrita, pertsonaien zergatiak eta jokaerak ulertzeko. Era berean, pertsonaien erabakiek dakartzaten ondorioak ere ulertzen ditut.

**Elkarrizketa**

- Gai naiz norbaitekin naturaltasunez hizketan hasi, jardun eta bukatzeko, hitz egiteko txandak hartuz eta emanaz.
- Gai naiz nire intereseko edo nire arloko informazio zehatz ugari beste norbaitekin trukatzeko.
- Gai naiz emozio-graduak adierazteko eta esperientzietan edo gertaeretan axola zaidana azpimarratzeko.
- Gai naiz iraupen jakineko elkarrizketan era aktiboan jarduteko, mintzagaiak interes orokorrekoak direnean.
- Gai naiz eztabaidetan neure iritziak arrazoitu eta defenditzeko, horretarako argibideak, argudioak eta iruzkinak eskainiz.
- Gai naiz elkarrizketari laguntzeko, gaia ezaguna denean, ulertzen dudala baieztatuz edo gainerako solaskideak hitz egitera gonbidatuz etab.
- Gai naiz alde zuzeneko prestatutako elkarrizketa bati aurre egiteko, ulertu dudana zuzena ote den baieztatzeko eskatuz eta erantzun batzuetan sakonduz.

**Ahozko adierazpena**

- Gai naiz deskribapen argi eta zehatzak egiteko nire gustuko arlo gehien gainean.
- Gai naiz aldizkari, elkarrizketa edo erreportajeetatik ateratako testu-zatiak irakurri eta ahoz laburtzeko, ikuspuntuak, argudioak eta eztabaidak islatuz.
- Gai naiz film edo antzerki-lanen argumentua eta gertakizunen sekuentzia ulertzeko eta ahoz laburtzeko.
- Gai naiz arrazonomendu logikoak eraikitzeko eta nire ideiak uztartzeko.
- Gai naiz arazo gainean dudak ikuspuntua azaltzeko, aukeren arteko abantailak eta desabantailak agertuz.
- Gai naiz gauzen zergatiaz, ondorioez edota balizko egoerez ditudan irudipenak eta gogoetak azaltzeko.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.





**B2 maila (jarraipena)****Estrategiak**

Gai naiz esaldi eginak erabiltzeko (adib. “galdera hori zaila da erantzuten”); horrela ez dut hitz egiteko txanda gal-

tzen eta denbora irabazten dut, formulazioa bilatzen dudan bitartean.

Gai naiz nire akatsik ohikoenez jabetzeko eta, alde horretatik, nire hizkera zaintzeko.

Gai naiz, oro har, nire akatsak eta hutsegiteak zuzentzeko, konturatzen naizenean edo gaizki ulertzeko bidea ematen

zutenean.

**Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak**

Gai naiz luze samar eta jario egokiz hitz egiteko. Esapideak edo hitzak bilatzeko orduan duda-mudan egonik ere,

etenaldi luze gutxi egiten dut.

Gai naiz informazio xeheak fidagarritasunez emateko.

Badaukat behar besteko lexikoa nire mezua ulertarazteko nire intereseko arloetan eta interes orokorreko arlo gehie-

netan.

Gai naiz nahiko ongi komunikatzeko eta, nire akatsek gaizki-ulertzeko bidea ematen dutenean, gai naiz horiek ere

zuzentzeko.

**Idazmena**

Gai naiz nire interes-arloko testu argi eta zehatzak idazteko, esaterako idazlanak, txostenak edo azalpenak.

Gai naiz interes orokorreko artikulua laburtzeko.

Gai naiz hainbat iturri eta komunikabidetatik jasotako informazioa laburtzeko.

Gai naiz azalpenak emateko idazlan batean edo «zuzendariarentzako gutun» batean, iritzi jakin baten aldeko zein

kontrako argudioak aurkeztuz.

Gai naiz gaiak sistematikoki garatzeko idazlan edo txosten gisa, puntu nagusiak azpimarratuz eta nire arrazoibidea

indartzeko argudioak emanez.

Gai naiz testu irakurterrazak idazteko benetako nahiz asmatutako gertakizunetaz eta esperientzietaz, baita behar diren

xehetasunak emateko ere.

Gai naiz filmen edo liburuen kritika laburrak idazteko.

Gai naiz eskutitz pertsonal batean hainbat sentipen eta jarrera adierazteko, eta baita eguneko berriak azaltzeko ere,

gertakari jakin batean nire ustez nagusia zer den azalduz.



Hizkuntzen Portfolio Europarra: egiaztatutako eredu, 06.2000 zkia.



**C1 maila**

Zerrenda hau oinarri hartuta, ikus ezazu zer egiteko gai zaren, eta ikastaroa amaitzerakoan zer egiteko gai izan nahi duzun. Erabil ezazu lehenengo zutabea zure lehenetasunak zehazteko. Bigarren zutabeak ikastaroan zehar zer egiteko gai zaren egunean edukitzeko balioko dizu.

**Nire lehenetasunak**

**Gai naiz hau egiteko**

**Entzumena**

